

## Sarrera gisa

*Deia*, 1983-06-07.

Izenburu honekin hasten dut gaur DEIA n egunerokoa izan nahi duen euskaraz idatzitako "Nire ikuspuntua".

Ba dut kezkarik.

Urte batzuk dela izan nuen hemen bertan esperientzia laburra; gero, eta beste erdarazko lan batzuk tartekatu zitzaizkidalarik, noizikpein bakarrik argitaratu ahal izan ditut euskaraz idatzitako lanak. Ez, ordea, honetarako gogorik ez nuelako, aitzitik, baina gure herrirako erderaz idatzi behar diren lan batzu (*Historia de Euskadi* eta Arana, Agirre eta Leizaolaren lan osoak) ere norbaitek egin behar zituelako. Nolanahi honek ez dit nere buru-bihotzean aspaldidanik nuen zuloa bete, eta betelan honetan hasi naizen bezain laster sortu zait kezka: Ea nire baitako eskakizuna betetzeko gauza izango naizen.

Literaturan sartu naiz hasieran.

Lehendabizi, nire aspaldiko ametsetan kokatua zegoen kontu literarioak idazteko asmoa betetzen hasi naiz; honetarako beta aurkitu dudalako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaini zuen laguntza niri ere iritsi zaidalako. Gero, bide berean kazetaritzan behartuko ninduen lan batetan sartzeko nahiera sentitu dut, nire euskara idatzia bizkortzeko asmoz.

Eta bide hau da DEIAri eskatu eta egunkariak eman didana.

Orain, nireak dira lana eta aipatu dudan kezka.

Ez da lehenengo aldiz neroni desafioka hasiaz lanetan sartu naizela, langintzaren zamak artezteko betak bidean aurkitzen joango naizen itxaropenarekin. Zera baitakit ongi, bideratu gabe uzten ditugun asmoak direla inoiz gainditzeko gai izango ez garenak.

Laguntza, noski.

Komunikabideak, norbaitengandik norbaitengana doan mezuaren ibilbidea dira. Mezuak, mamiz eta itxuraz deigarri izan behar du iritsiko bada: *mamia* dela eta, nik neurea den ikuspuntua besterik ez dut arriskatzen; *itxuraz*, ordea, ba dut erantzunkizunik, ez bakarrik euskararen arau aldetik, baita irakurleari irakurketa erraztekoa ere; eta ba dakit ongi honetarako hobeto gaitu behar dudala.

Itxurako honetan, eta ez da "itxura" bakarra!, euskarari errespeto handia diot.

Hemendik nire kezkarik handiena: idazleok erantzunkizun handia dugu, idatzia dagoenak pedagogi luze-sakona egiten baitu, batez ere gaur euskara dagoen egoeran.

Ez da "Nire Ikuspuntuan" arretarik faltako, baina horretaz gainera nire gaitasun ezaz eskatu nahi diot irakurleari onarpen apur bat.